

# Jean Baptiste Larralde, miriku bertsolaria (1804-1870)

(Jean Baptiste Larralde, the be bertsolari  
physician (1804-1870))

Charritton, Piarres\*

Eusko Ikaskuntza

Fac. Pluridisciplinaire

29-31, Cours de Comte du Cabarrus

F-64100 Bayonne

\* Euskaltzain osoa.

Eusko Ikaskuntza

---

*Euskarazko herri literaturaren historian noizean behin bertsolari "eskolak" agertzen dira eskualde edo familia jakinetan. Hori gertatu zen Hazparren (Lapurdi), Larralde-Bordaxuri familiaren baitan, hartatik gutxienez hiru autore atera baitziren. Lehena Martin Larralde (1782-1821) izan zen, "Galerianoaren kantuak" moldatu zituen. Bigarrena galeriano haren osaba burgesa da, Jean Baptiste Larralde (1804-1870), Donibane-Lohizungo medikua. Berak sorturiko 14 kantu bidali zituen Antoine d'Abbadieren lehiaketetara eta haiaietariko batzuk sartu dira herri kantutegian, hala nola "Lo, lo, nere maitea" (1859) sehaska kanta, "Alferretan haiz sortzen" (La violette) (1862) edo "Mutil zaharra" (1864).*

*Giltz-Hitzak: Iparraldeko 100 bertsolariak. Hazparneko hiru Bordaxuritarrak. Donibaneko miriku bertsolaria. Abbadieren bestetan, 1856-1865 arteko, 14 kantu berriak. Larralden beste porroxxak eta kantu liburua.*

*En la historia de la literatura popular, a veces aparecen "escuelas" de improvisadores populares en regiones o en familias determinadas. Es lo que ocurrió en Hasparren (Lapurdi) en la familia Larralde-Bordaxuri de donde procedieron por lo menos tres autores. El primero compuso la canción del "galérien" (presidiario), Martin Larralde (1782-1821). El segundo es el tío "bourgeois" (burgués) del llamado presidiario: Bernard Larralde (1773-1853). El tercero es el hijo de Bernard, Jean Baptiste Larralde (1804-1870), médico en San Juan de Luz, que mandó a los concursos Antoine d'Abbadie 14 composiciones originales, de las cuales han entrado en el repertorio popular: la nana "Lo, lo, nere maitea" (1859); "La Violette" (la Violeta) (1862); "Le Vieux Garçon" (El Soltero) (1864).*

*Palabras Clave: Los 100 bertsolaris de Iparralde. Los tres Bordaxuri de Hazparne. El médico bertsolari de Donibane. 14 nuevos cantos en las fiestas de d'Abbadie entre 1856 y 1865. Nuevos fragmentos de Larralde y el cancionero.*

*Dans l'histoire de la littérature populaire, des "écoles" d'improvisateurs populaires apparaissent parfois dans des régions, sinon des familles déterminées. C'est ce qui se produit à Hasparren (Labourd) dans la famille des Larralde-Bordaxuri, qui fournit au moins trois auteurs. Le premier composa la chanson du "galérien", Martin Larralde (1782-1821). Le second est l'oncle "bourgeois" dudit galérien: Bernard Larralde (1773-1853). Le troisième est le fils de Bernard, Jean Baptiste Larralde (1804-1870), médecin à Saint-Jean-de-Luz, qui enverra aux concours Antoine d'Abbadie 14 compositions originales, parmi lesquelles sont entrées dans le répertoire populaire: la berceuse "Lo, lo, nere maitea" (1859); "La Violette" (1862); "Le Vieux Garçon" (1864).*

*Mots Clés: les 100 bertsolaris d'Iparralde. Les trois Bordaxuri de Hazparne. Le médecin bertsolari de Donibane. 14 nouveaux chants lors des fêtes de d'Abbadie entre 1856 et 1865. Nouveaux fragments de Larralde et le chansonnier.*

Antonio Abbadiaren mendeurrenaren karietara, kurritu ditugu Abbadiaren lore jokoetan partehartu zuten bertsolarien izenak eta ez gara guti harritu ohartzearekin, joko horiek iraun duten mende erdian, orotara, Iparraldetik beretik, 100 bat izen bildu ditugula, jende horien izenaz besterik ez dakigun arren, zorigaitzez, gehienetan oraino. (Ikus halere horietarik 40 batentzat bil daitezkeen xehetasunak: "Antonio Abbadiak saritu koplarien guduak" (1851-1897) TESTU BILDUMA, Patri Urkizuren edizioa, Eusko-ikaskuntza, Euskaltzaindia, 1997).

Nahiz herri batzuetatik badatozen gehiago, beste zenbaitetarik baino, adibidez, Urruñatik, Saratik edo Hazparnetik, badugu hor ofizio ala klase guztietako jendea: apez, mediku, guarda, errient, nagusi edo jauntxo eskolatu, bai eta ere eskola gutiko eta etxe tipiko etxezain, edo langile soil asko.

Egia erran, falta ditugunak andreak dira: Emazte bakan bat aipu da haste hartan Azkainen edo Ziberoan, baina 1890 eko hamarkada igurikatu behar dugu bi neska bipil, zein gehiagoka plaza gainean aritzeko lotsa izan ez direnak aurkitu arte: bat Hazpandarra, 17 urtekoa, 1894 ean bere sorterrian irabazle aterako dena, Anna Etchegaray, Iratxeteneko alaba (1877-1942) eta bestea, ondoko urtean berriz nagusitzen dena auzo herrian, Marie Argain Kanboarra. Aitor dezagun gainera kasu hauek ez ditugula Abbadiaren beraren jaietan sartzten ahal, besta horietarik bazter eta horien aurka, Martin Guilbeau mirikuak eta honen lagun liberalek, 1893tik 1897 ra, Uztaritzen, Hazparnen, Ezpeletan, Kanbon eta Saran, antolatu euskal bestetan agertu baitziren.

Orain hemen aipatzera goazen gizona Jean Baptiste Larralde, Donibane Lohizuneko jaun miriku bertsolaria da. Eztabaida horiek sortu baino lehen zendua zen (1870) eta menturaz, liskar guztietarik bazter egon beharrez, eskolak bururatu orduko kokatua, bere arreba Janamariarekin, Hazparne sorterritik urrun Donibanen. Sortzez hazpandarra zen alabaina Larralde mirikua, eta 1804ean sorturik, Bordaxuri seme bezala sorterrian ezaguna.

Gauza jakina da euskal herrietan, gure belaunaldietaraino bederen, herritarrek elkar ezagutzen ohi zutela beren etxondoaren izenetik eta ez herriko etxean izkribatzen zuten deituratik. Ahazparnen adibidez, Ximun Xori deitzen genuen guztiek, Simon Duhour, Xoriteiko gure laguna, eta berdin auzoko Hiriart-Urruty Jean eta André anaia apezak, Abitu anaiak ziren guretzat, Abitueneke seme zirelako; nihaur ere funtsean, Ehulatei nintzen bezala haientzat, lege paperetan Charritton "sinatu" arren.

\*\*\*

XIX. mende hastetik ordea guztiz ezagunak ziren Hazparne herrian Bordaxuritarrak, hots, Peña Bordaxuritik atera ziren herriko semeak, ezagunegiak beharbada. Oroz lehen eza-gutua baitzen Martin Larralde Bordaxuri (1782-1821) "galerianoa".

Gilen Bordaxuriren eta Maria Iturbideren semea Martin, seme gehiena zen, baina Plumaienean sortua izanez, "Plumaienekeo premu" ere deitu behar zen, "Mila zortzi ehun ta hamabosgarrena" kantuaeren arabera. Bere aitarekin samurturik etxe-parteaeren gainetik, Jondoni Joane besta ondo batez, tiroz kolpatu zuen Jean Ospital Kaselarren-bordako etxezaina, Plumaienekeo nagusiaren kondu haren etxen belarretan ari zena. Ondorioz Agen-eko auzitegian "galeretan higatzera" kondenatua izan zen eta "galerianoa"ren kantu lazgarria bota ondoan, Rochefort-eko presondegian hil zen, 1821ean. Kantu horrek zuen lehenik hedatu urrunera Bordaxuritarren fama.

Galerianoaren kantuan aipu da ordea Martin Larralde Bordaxuri gaizoaren "osaba burjes" diruduna eta hau bera zen hain zuzen Gilen Larralde Bordaxuri, Plumaienekeo nagusiaren

anaia, orduko kazeta eta liburuetan aipatzen den Bernard Larralde Bordaxuri bertsolaria (1773-1853).

Ezen Hazparneko herriko etxean ditugun zentsu paperetan oharitzen gara delako Bernard Larralde horren gizarte maila eta funtsak urtetik urtera goiti zihoazela, karrikako jaun-en heineraino. Lehen zentsu liburuan alabaina, 1804ean Peña Bordaxuriko etxe tipian oihalkin eta ezkongai soil ekarria da gure gizona.

Bigarrean aldiz, 1809 an, Marie Etcheverryrekin ezkondua da, Battitta haien bien semeak bost urte ditu, alaba Gaxuxak lau eta alaba Janamarik bi eta, denak etxe ttipi berean bizi izanik ere, tratulari ofizioa hartua du etxeko nagusiak.

1831ko zentsu liburuan azkenik, Bernard Larralden haurrak hazi dira, Xemartin tipia ere sortu zaie, baina, orozgainetik, Peña Bordaxuria utzirik, Hazparneko hirierdira etorri da familia, Behereko karrikako Eihaberrian bihi saltegi nasai baten jartzeko. Etxeko nagusi-etxe-kandere eta haurren itzalean beste hainbeste neskato, sehi, izkribau edo zerbitzari bizi dira, hamahiru lagun bederen etxe berean, etxeko mailaren seinale.

Zenbait urte geroago, hemen gairi iragaiten direlarik Louis Philippe Frantziako errege-ren semeak, hala nola Nemours-eko dukea 1845ean edo Montpensier-ko dukea 1846an, eta haien aitzinera bertsolari batek behar duelarik agertu Hazparnen edo Baionan, Bernat Larralde Bordaxuri dugu ikusten eta entzuten. Larraldek ondu bertsuak aurkitzen ditugu "Phare des Pyrénées", "Le Messenger de Bayonne", edo "L'Adour" Baionako egunkarietan.

A. Chahok karia horretara botatzen dio piko bat edo beste, frantsesez, 1845an, irailaren 14eko "Ariel"-en zenbakian, "Hazparneko bertsolari aipatua" eta "gure olerkari kide xorrotxa" deitzen duenari. Guhaurek, egia erran, ez diegu hainbateko graziarik kausitzen delako bertsoei: Garroko baroinaren ohoretan Otxalde gazteak edo Sohutako anderearen ezteietan Etxahunek berak eskaini zituztenen heinean ezar genitzake; ez biziki gora; gomendiozko bertsoak besterik ez dira.

Gazterik hasia zen, egia erran, Bernat Larralde Bordaxuri, konplimenduzko bertso horiekin, ezen "lehen misionea eman zelarik Ahazparnen", 1819an, jaun misionesten ohoretan kantuak eman zituen, Lahirigoyen, Belloc, Jauretche eta Malgor jaun apezpei bedera bertso eskainiz.

Erakutsi zuen bizkitartean bazekiela ere hartaz gaitzerran zuenari, nornahi izan zedin, zorrotz ihardesten:

"Kantu berri batzu nahi tut paratu,  
 "Arrazoina zer den klarki esplikatu,  
 "Gizon famatu batek bainau atakatu,  
 "Hobenik gabetarik gaizki akusatu.  
 "Nik ez dut mendratu  
 "Ez nihon behartu,  
 "Badenez aipatu,  
 "Bainan orai ez diot nahi barkatu.

Beste batzuen bidea hartuz oraino, bi hizkuntzatak bertso umorezkoak egin zituen kri-nolinen modaz trufatzeko:

"Avec gaîté nous allons botzak altxatzerat  
 "Pour complimenter nos filles errepikatzerat.  
 "Celui qui veut sera libre irri egiterat,  
 "Dix couplets qui sont jolis goaz kantatzerat.

J.B. Duvoisin-en paperetan bizkitartean baditugu oraino beste bertso lerro batzu, Bernard Larralde Bordaxuri beraren kontu emaiten direnak. Lehena, "L'émigrant" edo "Herritik joailea" deitzen da eta honela dio:

"Orai hasten naiz kantatzen neure penen deklaritzen  
"Eztitasunez bete lore bat aspaldi dut adoratzten,  
"Haren ganikan urruntzeaz bihotza zaut erdiratzen".

Bestea berriz, "Les tourments de l'amour" edo "Amodioaren oinazeak" da eta hauxe du errepika (Nehor eta Dufauk jarri zuten airea GURE HERRIA-n, 1925-XII).

"Goazen goazen gazte lagunak, zoin gure maiteñoen gana,  
"Gure pena eta doloren heier deklaratzerat  
"Heier deklaratzerat  
"Bai eta kontsolatzerat".

Bertso horiek guztiak bilduz geroz ikus genezake nik uste, lerro ohoragarrian jarri behar dugula bigarren Larralde Bordaxuri hau, bere sasoiko herritar bertsolarien artean.

Dena dela, Bernat Larralde Bordaxuri hil zen urte berean, 1853 an, J.M. Hiribarrenek, Baionan Lasserre baitan argitaratu zuen "Eskaldunak" izeneko liburu ezaguna eta hor lerro hauek idatzi zituen:

"Aipatua izan da kantaz Bordaxuri,  
"Bazakien ematen gatza pikoeri.  
"Miriku den semeak itxitzen omen du  
"Herriak prezauren, deus agertzen badu".

Goraxeago errana baitzuen hazpandar mirikuen saila goraiatzean,  
"Donibanen Larralde hainitz da prezatzen",

Bardozeke erretor bertsozaleak bazekikeen ordukotz Larralde-Bordaxuri bertsolariaren seme mirikuaren eta haren talenduen berri, hau ordurarte ixilik egona bazen ere.

\* \* \*

Laster bada, 1856 an, Urruñan plazaratu zen lehen aldikotz lore jokoetara, Jean Baptiste Larralde jaun mirikua (1804-1870) eta lehen saria eraman zuen. Hona non dugun beraz hirugarren hazpandar kantugile Bordaxuritarra.

Urte hartako gaia zen "Herriko besta". Orotara, 14-15 koplari agertu ziren; lau bederen hazpandarrak; guhaurek haurrean ezagutu dugun bertsolaritza motaren adierazgarri. Battiitta Larralde Bordaxuri, Iribarnegaray Xetre, Salvat Daguerre, eta "Laborari seme" delako bat.

Jadanik irabazle izana zen Leon Elissamburu, J.M. Hiribarren Bardozeke erretora bera eta Léon Dajas honen beretterra, berriz maiz agertzekoak ziren Martin Arrupe Urruñako laboraria eta Arnaud Haramboure Ziburuko xantrea, gero Gabriel Lamarque Heletarra, Alexander Meabe Hegoaldekoa, " Paul Louis", "Ontzakozale" eta "Zuberotarra" sinatzen zutenak ziren besteak.

Epaimehaikoen paperen arabera, Lissardy Hazparneko apeznausiak Dajas-Hiribarrenen bertsoei eman nahi zien lehen saria.

J.B. Duvoisin kapitainak ordea ez zituen gogoko "letradunen" lizentziak edo errazkeriak, "eskola gutiko" Martin Arrupek edo Leon Elissamburu batek sekula egingen omen ez zituzte-

nak. Batere zalantzarik gabe, "Larralde Bordaxuri", "bertsolari hoberenetarik zenaren semea-ri" ematen zion prima, jakin zuelako, bestek ez bezala, Bonaparte printzearen presentziaren-gatik, hastetik hartua zuen bide zuzenetik, hots, "Herriko besta"ren gai nagusitik aldaratu gabe, tilet bat edo beste gora behera, bere saila bururaino eramaiten.

Eta epaimahaiko gehiengoa aburu bereko izan zenaldi hartan.

Erran behar da halere Donapauetik zetozen bertso batzu baztertu zirela, berantegi etorri zirelako. J. Gorostarsou apezak bidaliak zituen eta Larralderenekin parekatzeko on ziren.

Berriz agertu zen beharrik geroxeago ezpeletar apez gaztea,.

\* \* \*

1857 an ordea, ez dakigu zergatik, arrakasta guti izan zuten Urruñako lore jokoek: Bi izen doi-doia plazaratu ziren.

1858 an berriz sekulako indarrean altxatu ziren Urruñako euskal bestak. Mota guztietako bertsoak etorri ziren eta epaimahaia eman zituen hiru sari eta hamalau aipamen.

Jean Baptiste Elissamburu lotinantaren eta Martin Guilbeau mirikuaren izenak agertzen dira lehen aldikotz, bai eta Joanes Etcheto Senpereko errient ezin atetuarena ere. Gehiago oraino berak epaile edo epailei hurbiisko izanagatik J.B. Duvoisin-ek berak, Hiribarrenek bezala, parte hartzen du izenorde batzuen itzalean.

Baina orohar, eskutan ditugun hogeita hamalau kantuetarik ez dut uste bakar bat baden zinez goraiatzea merezi duenik. Alta bada hor dugu Larralden saio bat ere, "Ene izar maitea"ren airean egina, "Eskualduna" izenekoa. Frantziaren untzia gidatzen duen "Napoleon handiari", emazte bizkaitarrarengatik seme eskualdun bat sortu zaiola eta, behar omen dute Eskualdunek Jainkoa otoiztu

"Eman diotzan lagun gure printzeari  
"Bere armada guziak dohain guziekin  
"Izan dezan Frantziak Indar etsaiekin".

Aitor dezagun epaimahaioek beren hamazazpi sari eta aipamenetarik kanpo utzi zutela kantu hori. Behar ere.

Ez ziren bada horretan lotsatu ez bertsolariak ez saristatzaileak eta 1859 an uzta hobea etorri zen. Larralde mirikuak igorri zituen hiru kantu berri; baitu, gure ustez, bakoitzak bere grazia.

Lehena, adibidez, aitzineko urtekoaren aire berean egina, sehaska kantua zen eta "Lo, lo! nere maitea", zioen. Lehen saria irabazi zuen eta iduriz arrakasta polita izan zuen bazte-rretan.

Bigarrena, alegien sailean sar genezake, "amatxi xahar batek, iruten hari dela, supazter xokoan, miletan kondatzen dituen ixtorioen lerroan". Ez die zorrik mende berean Goyhetxek, Zaldubyk, Ibarrartek eta beste askok eskaini dizkigutenei.

Hirugarren saioa "Jose Mari Ezkerraren laudorioak" deitzen da eta aitzineko urtean lore jokoetara aurkeztu zen eta baztertua izan zen J. M. Mikelajauregi Beratar bertsolariaz hari da. Larraldek dirudienez maite ditu haren apaltasuna eta xorroxtasuna. Ezen,

"Asto jaunek bakarrik zuten etsai handi".

Ez baita harritzeko:

“Haien karatosatzen zagon maiz izerdi”.

Kopla horiek gogoratu dizkidate, beste hazpandar batek, Jose Mendiague-k geroago Montevideotik, P.M. Otanori, J.B. Otxalderi, Kadet Oxandabaratz, bere herritar “Firma gabe-ko bati” edo beste bertsolari lagun batzuei bidaltzen zizkienak. Larralde mirikuak erakusten digu Bordaxuritarren garratz hartarik bazuela berak ere, saioa giltzatzen duenean azken ber-  
tso honekin:

“Herronkez mundu huntan Apollon trufatzen,  
“Handiez bezain ungi da xumez oroitzen,  
“Maiz jauregi murrutan belar astoena,  
“Maiz xola baratzetan lili ederrena”.

Erran behar dugu oraino, 1859 ko urte aberats horretan agertzen diren hogei lehiakide-  
en artetik nabari direla, aitzineko Hiribarren, Guilbeau, Otxalde, edo Joanes Etxeto-z bestal-  
de, izen berriak ere: hala nola Zuberoako Marider Uthurralt anderea, J. Saubaber Uztaritzeko  
apez Getariarra, ezagutu nahi genukeen Pierre Mendibil, “artzain dohatsua”, Londaitzbehere  
apeznagusiaren gomendiozko karta batekin eta Haranbeltz eta Hergaray bi izenordeen itza-  
lean datorkigun Gratien Adéma, Hazparneko bikari gaztea, Eskual Herriko pilotarien ospa-  
tzen eta karrikako atso kalakarien zirikatzen hasia ordukotz eta, orozgainetik, jada aipatu  
dugun Jean Gorostarsou apez, Duvoisin Gorostarsou Cesar eta Jean Baptiste, bi anaien  
kusi lehena.

Honek bigarren saria baizik ez bazuen ardietsi “Orhiko xoria” igorririk Erromatik, gutun  
eder bat lagun, lehen saria izan zuen Larralde bezain gora jar zitekeen gure ustez.

\* \* \*

1860 an ordea berriz lehiari gertatu ziren Larralde eta Gorostarsou: Honek, Duhalde ize-  
nordearekin, igorri zuen “Desesperantza”; Oxobi zenak hain maite zuen “Mendiak bete elu-  
rrez” kantu zaharren airean emana. Aipamen soila izan zuen. Alta hainbat hartze zuen, gure  
ustez, bere etsipenean Arantze gaineko Amari botatzen zion dei saminak. Ez zen gero berriz  
agertu, gazterik hil baitzen 1868 an, Erromatik lekora Pariseko lanetan osasuna galdurik.

Donibaneko mirikuak aldiz hiru kantu berri osatu zituen: “Xori ohatzea”, “Gizon sobrea  
eta edalea”, “Itsasoa miriku”. Bertsoak zuzenak ziren eta gaiak ere aski ongi bereziak, baina  
aldi honetan epaimahaikoek hobetsi zituzten beste hiru lan, hiru idazle ez-nolanahikoek bida-  
liak: hauek baitziren “Gazte hiltzera dohana”, J.B. Elissambururena eta lehen saria izan  
zuen; “Soldadogoatik Eskual Herrirat”, T. Elissalde (J.B. Duvoisin) ainhoarrarena eta biga-  
rren saria izan zuena; “Dantzaria” Leon Elissambururena eta oraingoan aipamen bat izan  
zuen lan bakarra.

1861ean, gerlarengatik, ez zen izan Urruñan ez bestarik ez saririk.

1862 an, berriz hasi ziren Abbadiaren lehiaketak, baina bospasei lehiakide baizik ez ziren  
hurbildu: “Pilotariak” ekin izengabe bat; “Atsegina”rekin Darricarrère kapitaina; “Kriketa”rekin  
Garroko jaun baroina; eta “Oderik, aita sainduaren soldadoa”rekin lehen aipamena izan zuen  
Frantzizko Laphitz arizkundar idazle aipatua, orduan Baigorri bikari zebilena.

Beste ohiko lehiakideak aldiz hiru hauek izan ziren: J.B. Elissamburu, bi kantu bikaine-  
kin, bat “Apexa eta lorea” lehen saria eraman zuena, bestea “Nere etxea”, “Ikusten duzu goi-

zean” bezala geroztik bazter guztietan ezaguna, baina orduan aipamen soilarekin gelditu baitzen.

Aspaldiko J.M. Hiribarren “Salataria” izenordearekin, ezjakin nongo “Herri Biltzar” edo kontseiluaren luze ta zabal salatzer a etorri zen.

Larralde mirikuak “Brioleta” igorri zuen aldi honetan eta, Elissambururen “Nere etxea” bezala, aipamen hutsarekin utzi zuten. Alta bada, “Brioleta” horrek ezin hobeki adierazten zuen egilearen talendu berezia, haren sotiltasun gurbila. Baina epaimahaikoek ez zuten ikusi lehenbizian.

\* \* \*

1863ean, lehen saria eman ondoan Betiri Olhondo delako baten “Marinelari”, Donibaneko mirikuaren “Xorinoa kaiolan” kantuari lehen aipamena eskaini zioten Abbadiaren epailek. Olerkari beraren beste lan bat aldiz, “Lana” deitua, aipatu ere ez zuten egin. Eta egia erran, hobestekoa zen lehena, nahiz errazago den bihotzera joz Sehaskako haurtxoaz, Baratzeko brioletaz, Ohatzeko edo Kaiolako txoriaz urrikaltzea ezen ez eta, bertsolari artexak batzutan egin ohi zuen bezala, adimenari edo historiari dei eginez, Zuhurtzia edo Lana gorestea.

Dena den, 1864 an, Urruñako lehen agertokitik Abbadiaren euskal bestak Sarako herrira aldatzearekin, “Solferinoko itsuaren” kantu hunkigarria goretsiagatik, epaimahaikoek jakin zuten umorea ere prezatzen eta lehen sariaren mailan ezarri Larralden “Muthil-zaharra”.

Baziren beste umorezko saio batzu, hala nola J.M. Hiribarren “Menditarra”ren bi kantu, Landeztoy Donapaleuko xantrearen “Makila” edo Larralde berak asmatu “Ene sehia Gerexanino”, Santa Teresaren kantikaren airean kantatzekoa, eta honela bururatzen dena:

“Horra nere neskata,  
“Gisa guziz artexa,  
“Balinbada erostunik,  
“Salduko diot, bai nik,  
“Emanen diot merke,  
“Merke izan baditeke! (bis).

“Muthil-zaharra” hobetsi zuten halere epaileek eta ongi egin zuten, zeren laster bazterretan hedatu baitzen miriku donadoaren kantua.

Izan zuen gainera ondoko urtean berean Donibaneko miriku mutil-zaharrak Ezpeletako David miriku donado eta adiskidearenganik maleziarikgabeko errefera: “Putxurdina”, izeneko.

1865 eko bestetan ordea lauzpabost lehiakide baizik ez ziren agertu eta Larralde Errexinoletari eman “Eria ezagutzaz betea” kantu minbera eta nigartiari eman zitzaion ohorezko saria. Donibaneko mirikuak hamar bat urtez bidali 14 bertso saioetarik azkena izan zen. Handik laster hil baitzen, 1870eko martxoaren 21 ean, 65 urte hor nonbait zituela.

\* \* \*

Battitta Larralde Bordaxuri mirikuaren kantuetarik bizpalauek bederen arrakasta ederra izan dute Euskal herrietan: geroztik asko hedatu diren euskal kantu liburuak kurritzen ditue-

na ohartzten da gehienetan hor aurkitzen direla “Lo lo nere maitea”, “Brioleta” eta “Muthil-zaharra”.

Bestalde anitz urte geroago, ikusten dugu mende honen lehen herenean, aita Donostiak bildu zizkiola andere Antsoxuri Ziburukoari Donibaneko mirikuaren umorezko bi kantu gureztat ezezagunak; GURE HERRIAN (1936-VIII) argitaratu zituenak.

Lehenarekin, iduriz, Janamari bere arrebari mintzo zitzaion:

“Primo mihi, secundum tibi, ez nuen nahi sinetsi  
“Ene arreba Janamari, iduri baitu berga erdi  
“Elizatik etxerat eta hor dabila zitzi pitzi,  
“Axularrek erraten du holakoentzat “hitzuntzi”.

Bigarrena, menturaz, beihalako Gerexaninori hari zen:

“Gormant handia, munduan bakarra,  
“Hik jan baitun nere sagarra,  
“Heorrek iretsi  
“Debru zafla naski.  
“Ez naun ez estonatzen  
“Gatuen hondarrak baitiun iresten”

Horretan gelditzen da gure uzta apurra; ohorezki jartzen duena gure ustez miriku bertso-laria, bere etxeko Bordaxuritarren, bere sorterri aldeko Etxeto-Katxo, Iribarnegaray-Xetre, Jose Mendiague, eta Jean Hiriart-Urruty zenarekin biltzen hasi ginen hainbat bertso-lariren konpainian.

Saio hau hedatu, sakondu eta osatu nahiko duena ohartuko ahal da bestalde, bera bertsolari bezala agertu aitzin, bertsozale izana zela Battitta Larralde Bordaxuri eta haren iturriak ikertu nahi baditugu hor dugula gaurregun, Durangoko udalaren laguntzarekin 1987 an Patri Urkizuk argitaraturik, Julio Urkixo jaunak erosi omen zuen Larralde-ren XVIII. mendeko kantu liburu eskuz idatzia (R.I.E.B. 1923-158.).

P.S. 1923 an Julio Urkijoren eskutan zen Larralden kantu liburu, Manu Sotak Baionako Erakustokira nondik bildu zuen galdatzen diolarik Patri Urkizuk bere buruari, eta Chaho eta Lespes eta Vinson eta Lacomben bidea hartzen duelarik nik uste dut errebelatzen dela gure adiskidea, zeren eta beste bide bat baitugu zuzenagoa eta ziurragoa –bakoitzaren ideologia ere kontutan hartuz geroz– Larralderi hurbil genuen alabaina mirikua Donibanen hil zelarik 1870ean, Duvoisin kapitaina. Honen paper eta liburu altxor-rra berriz 1891 ean etorri zen Ziburuko apezetxera P. Haristoy eta J.B. Daranatz-en eskuetara (EUSKERA, 1991-II, J. Haritschelhar eta P. Charritton, 373-381).